*Mari Tere Gantxegi Juaristi*

*Eibar, Gipuzkoa*
*(1923-2019)*



Aurkibidea

## Biografia



Eibarren jaio zen Bidebarrieta kalean eta, bost urte zituela, Grabadores kalera joan zen bizi izatera. Ikasketak Kontzeju Zaharrean egin zituen. Martina Muruaren akademian sekretaria izateko prestatu ostean, Victor Sarasquetaren tailerrean hasi zen beharrean eta 31 urtez jardun zuen bertan, 1941-1972 bitartean. Victor Sarasqueta-n gustora egon arren, 1972an “Patronato Eibarrés de Beneficiencia”ren (baliabide gutxi zituzten eibartarrei laguntza emateko zentrua) buru jartzea eskaini zioten eta bertan hasi zen. Jubilatuta egon arren, elkarrizketa egin zitzaionean oraindik ere egunero joaten zen hara lanera, laguntzera. Eibarren egin izan ziren gizarte-lan guztiekin lotura handia izan zuen. Acción Católica-n egon zen gaztetan eta Mercedes Careagak gidatu zuen Goi Argi Elkartearen (Eibarko Sociedad Femenina) sorreran ere parte hartu zuen 1951n. Tonbolak, seminarista eguna… herriaren alde egin izan ziren hainbat eta hainbat ekitaldiren atzean egon zen beti. Elkarrizketa egin zitzaionean, Mari Tere zen Goi Argi elkartearen presidentea.

# Zintak

### AB-867

- **Proiektua**: Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bustinduy Arizmendi, Idoia
- **Data**: 2009-12-07
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Bustinduy Arizmendi, Idoia

### AB-868

- **Proiektua**: Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bustinduy Arizmendi, Idoia
- **Data**: 2009-12-07
- **Iraupena**: 60 min

- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Bustinduy Arizmendi, Idoia

### EIB-052

- **Proiektua**: Eibarko ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Data**: 2008-04-24
- **Iraupena**: 40 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k)**: Zubeldia, Gorka
- **Emalea**: Sarasua Aranberri, Asier

## Pasarteak

### 1. Eskola kontuak: Doña Paka, Doña Petra eta Pagei kaleko eskolaz

- **Erref**: AB-867/001
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena**:
<p>Doña Paka, Doña Petra eta Pagei kaleko eskolaz</p>

### 2. "Kontzeju zaharrean" zer zegoen

- **Erref**: AB-867/002
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena**:
<p>San Andres elizaren parean kokatzen zen "Kontzeju zaharra". Eraikineko pisu bakoitzean zer zegoen kontatzen du.</p>

### 3. Kontzeju zaharrera azterketak egitera

- **Erref**: AB-867/003
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena**:
<p>Eskola kontuak; Kontzeju zaharra; azterketak egitera udaletxetik joaten zen jendea</p>

## 4. Doña Petrarekin ikasitakoak

- **Erref**: AB-867/004
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

**Laburpena**:
<p>Eskola kontuak; Doña Petrarekin irakurtzen idazten eta kontuetan ikasten</p>

## 5. Eibar gerra aurretik; beste eskola batzuk; Jardiñetan, udaletxean, kontzeju zaharrean, kuartelean...

- **Erref**: AB-867/005
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena**:
Eibar gerra aurretik; beste eskola batzuk; Jardiñetan, udaletxean, kontzeju zaharrean, kuartelean...

## 6. Lehenengo haurtzaindegia

- **Erref**: AB-867/006
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

**Laburpena**:
<p>Patronato de Beneficiencia; lehenengo haurtzaindegia Jardiñetako eskoletan. Frontoi zaharreko eskolak</p>

## 7. Cayetano Careaga eta GUREA tailerrez

- **Erref**: AB-867/007
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena**:
<p>Cayetano Careaga eta GUREA tailerrez</p>

## 8. Don Juan eta Don Felix-ekin dotrinak

- **Erref**: AB-867/008
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena**:
<p>Mercedes Careaga, Don Juan eta Don Felix; Euskara erakusteko jokoak</p>

## 9. Don Enrique Laborda igande batzuetan euskarazko kantuak erakustera etortzen zen

- **Erref**: AB-867/009
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

**Laburpena**:
Don Enrique Laborda igande batzuetan euskarazko kantuak erakustera etortzen zen

## 10. Acción Católica; Don Rafael Artola, Mercedesen konferentziak eta Felisaren sukalde klaseak

- **Erref**: AB-867/010
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk

**Laburpena**:
Acción Católica; Don Rafael Artola, Mercedesen konferentziak eta Felisaren sukalde klaseak

## 11. Zergatik deitzen den Goi Argi

- **Erref**: AB-867/011
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena**:
<p>Goi Argi; izena nola bururatu zitzaien</p>

## 12. Goi Argi; sorrera; Sociedad Femenina Eibarresa bezala sortu behar izan zen

- **Erref**: AB-867/012
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena**:
Goi Argi; sorrera; Sociedad Femenina Eibarresa bezala sortu behar izan zen

## 13. Lan sozialak: jendeari laguntzeko esne-hautsa labadoretan urarekin nahasten

- **Erref**: AB-867/013
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

**Laburpena**:
Lan sozialak: jendeari laguntzeko esne-hautsa labadoretan urarekin nahasten

## 14. Mercedes Kareagarekin eta Don Jose Luis Ansorenarekin erretiroak sakristian

- **Erref**: AB-867/014
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk

**Laburpena**:
Mercedes Kareagarekin eta Don Jose Luis Ansorenarekin erretiroak sakristian

## 15. Goi Argi; lehenengo junta

- **Erref**: AB-867/015
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena**:
Goi Argi; lehenengo junta

## 16. Goi Argi; emakumezkoen lehenengo soziedadea. Gizonezkoak karnabaletan bakarrik sartu ahal ziren

- **Erref**: AB-867/016
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena**:
Goi Argi; emakumezkoen lehenengo soziedadea. Gizonezkoak karnabaletan bakarrik sartu ahal ziren

## 17. Goi Argi; nola eta zergati sortu zen

- **Erref**: AB-867/017
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena**:
Goi Argi; nola eta zergati sortu zen

## 18. Goi Argi; atezaina eta famiilia bertan bizi ziren

- **Erref**: AB-867/018
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena**:
Goi Argi; atezaina eta famiilia bertan bizi ziren

## 19. Tere Ganchegui eta Gregorio Santrakruz, Indianoko Palazioan dantzan erakusten

- **Erref**: AB-867/019
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena**:
<p>Tere Ganchegui eta Gregorio Santrakruz, Indianoko Palazioan dantzan erakusten</p>

## 20. Seminarista eguna; Koliseoan

- **Erref**: AB-867/021

- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena**:
Seminarista eguna; Koliseoan

## 21. Tonbola benefikoak; ezagunenak Arrate egunekoak

- **Erref**: AB-867/022
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

**Laburpena**:
Tonbola benefikoak; ezagunenak Arrate egunekoak

## 22. Errehabilitazio zentroa; historia; 1964sortu zenetik 1971an Tere buru den arte

- **Erref**: AB-867/023
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

**Laburpena**:
Errehabilitazio zentroa; historia; 1964sortu zenetik 1971an Tere buru den arte

## 23. Sarasketarenean jardun zuen aurretik

- **Erref**: AB-867/024
- **Iraupena**: 1:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 01:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

**Laburpena**:
<p>Zentrora lanera pasa aurretik Victor Sarasketa lantegian aritu zen. Lan hura lagatzea asko kosta zitzaiola kontatzen du.</p>

## 24. Martina Muruaren etxean sekretaria ikasten

- **Erref**: AB-868/001
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

**Laburpena**:
Martina Muruaren etxean sekretaria ikasten

## 25. Patronatuko bestelako lanak; abiadore izandakoen pentsioak lortzen

- **Erref**: AB-868/002
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

**Laburpena**:
Patronatuko bestelako lanak; abiadore izandakoen pentsioak lortzen

## 26. Eibarko alkateak; Kortazar eta Telleria

- **Erref**: AB-868/003
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena**:
Eibarko alkateak; Kortazar eta Telleria

## 27. Peli Egaña: lagun handia, Eibarren herriaren alde lan asko egindakoa

- **Erref**: AB-868/004
- **Iraupena**: 1:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 01:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

**Laburpena**:
Peli Egaña: lagun handia, Eibarren herriaren alde lan asko egindakoa

## 28. 1923an jaio zen

- **Erref**: EIB-052/002
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:00:34. **Bukatu**: 00:02:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena**:
1923an jaio zen. Herritarrei asistentzian eta bestelakoetan laguntzen lan egiten du.

## 29. 1964an gaixo ezinduentzako elkartea

- **Erref**: EIB-052/004
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:02:54. **Bukatu**: 00:05:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

**Laburpena**:
1964an umeen buruko paralisiaren brote bat egon zen eta guraso talde bati esker zabaldu zen patronatua. Hasieran fisioterapia ematen zen eta gerora helduak ere bertaratzen zirenez, gizarte segurantzakoekin elkartu eta 1975ean zahar nahiz gazteentzako jarri zuten lokala.

## 30. Elkarteko medikuak

- **Erref**: EIB-052/005
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:05:20. **Bukatu**: 00:06:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

**Laburpena**:
Urteetan bertatik pasa diren medikuak izendatzen ditu.

## 31. Soldatarik gabe, herritarrei laguntzen

- **Erref**: EIB-052/006
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:06:30. **Bukatu**: 00:08:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

**Laburpena**:
<p>Eibarko Victor Sarasketa lantegian 31 urte egin zituen lanean eta ondoren Patronato Eibarres errehabilitazio-zentrura joan zen. Erabakia hartzea kosta zitzaion, baina lan "humanoagoa" zelakoan aukeratu zuen bigarren hau. Jubilatuta egon arren, oraindik egunero joaten da lanera, bere borondatez, jendeari laguntzearren.</p>

**Transkripzioa**
-Ni sartu nitzan han. Ni neuan Bitor Sarasketanian. Hogeta hamaika urte ein nittuzen Bitor Sarasketanian eta karta bat bialdu zesten esanaz ia hona etorriko nitzakian. Kosta jatan. Ya Sarasketanian etxeko einda ta kosta jatan, baiña pentsau neban hemen humanidade gehixau zeuala, premiña ekan jendiandako alkartasuna edo laguntasuna edo zeoze hemen gehixau, ta bueno, oso lagun amaittu nitzan Bitor Sarasketanian. Oindiok be, esaten detsut, Bitor Sarasketan billobak felizitatzen nabe nere egunian. Ez dira /

eztira/ asko gelditzen e, ya Sarasketatarrak. Bitor Sarasketan, nausixan, aittan umerik ya ez da /ezta/ gelditzen. Danak hil dira, baiña haren seme-alabak eta jarraitzen dabe, bai. Danekin dakat, esaten detsut, hartu-emon haundixa. Bueno, ba, azeptau neban hau puestuau. Gero be eurokin hartu-emon haundixa euki dot. Eta hillan… esto… ni etorri nitzan hona milla bederatzirehun ta hirurogeta hamabixan. Hori da, Bitor Sarasketanian milla bederatzirehun ta batian hasi nitzan, berrogeta batian. Oseake hogeta hamaika urte ein nittuzen ta justo hemen marzuan aurrenian sartu nitzan. Gero larri gebizen diruakin ta ni larogeta hamahiruan jubilau nitzan. Jubilau nitzan ta hementxe jarraitzen dot lanian lehen bezela, kobrau barik. Gaiñera, akordau be ez jata /etxata/ eitten kobrau bihar dotenikan. Bestieri pagatzen detset eta ni trankil-trankil gelditzen nai, ni nere jubilaziñuakin ondo.
- Eta jarraitzen dozu egunero-egunero…
- Jarraitzen dot egunero ta gaiñera orduak zainduaz, e. Nik obligaziñua baneuka moduan etortzen naiz.

## 32. Mercedes, dotrinako andereño

- **Erref**: EIB-052/011
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:12:30. **Bukatu**: 00:15:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena**:
<p>Zazpi urte zituela Mercedes Kareaga eibartarrak hartu zuen Mari Tere; dotrinaren bitartez ezagutu zuen. Anekdota bat aipatzen du. Mercedes dotrinako andereñoa zen, eta Mari Tereren ahizpa eta beste lagun batzuk lehiaketa batera eraman zituenekoa kontatzen du.</p>

## 33. Euskaldunek dotrina euskaraz

- **Erref**: EIB-052/012
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:15:30. **Bukatu**: 00:16:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena**:
Guraso euskaldunak zituztenak dotrina euskaraz ikasten zuten. Mari Tereren aitak ez zekien erdaraz, anekdota bat kontatzen du.

## 34. Igande arratsetan ebangelioa

- **Erref**: EIB-052/013
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:16:10. **Bukatu**: 00:18:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena**:
<p>Dotrina euskaraz ikasi zuen, Eibarko parrokiko sakristian erakutsi ohi zieten. Mercedes zen denen buru eta katekistak zituzten. Don Felis Martiegi aipatzen du, dotrinako irakaslea hau ere. Arratsaldeetan joaten ziren dotrinara eta igande arratsaldeetan ebangelioa euskaraz idatzita eraman behar izaten zioten Don Felisi.</p>

## 35. Batzokiko antzerkiak

- **Erref**: EIB-052/014
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:18:00. **Bukatu**: 00:18:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Aisia » Kultura » Zinema

**Laburpena**:
Igandeetan sakristiatik ateratakoan antzerkia edukitzen zuten Eibarko batzokian; irakasleak izendatzen ditu.

## 36. 1951ean Goi Argi elkartea sortu zen

- **Erref**: EIB-052/015
- **Iraupena**: 0:05:27. **Hasi**: 00:18:55. **Bukatu**: 00:24:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak

**Laburpena**:
Eibartarrak euskaldunak ziren, Mari Tereren etxean ez zen erdararik entzuten. Gerratik bueltatzean neskak ezkontzeko prestatzen zituen Mercedesek, Goi Argi izeneko elkartea sortu zen 1951ean.

## 37. Emakumeen elkartea ez zen ohikoa

- **Erref**: EIB-052/016
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:24:22. **Bukatu**: 00:26:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

**Laburpena**:
Eibarko Goi Argi elkarterako diru bila kutxara joan eta gertatutako anekdota bat kontatzen du. Garai hartan ez zen normala emakumeen elkartea ikustea, emakumeak gizon eta senargaiekin joaten ziren eta "bolauak" eta txokolatea hartzen zituzten bertan.

## 38. Emakumeak tabernara sartzea gaizki ikusia

- **Erref**: EIB-052/017
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:26:07. **Bukatu**: 00:29:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

**Laburpena**:
Emakumeak tabernara sartzea gaizki ikusia zegoen eta Eibarko Goi Argi elkartera joaten ziren arratsaldea pasatzera. Elkartea sortu zutenak izendatzen ditu.

## 39. Sukaldaritza eta jostun ikastaroak Goi Argin

- **Erref**: EIB-052/018
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:29:17. **Bukatu**: 00:30:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak

**Laburpena**:
Neskentzat eguneroko otorduak prestatzeko sukaldaritza eta josten ikasteko ikastaroak ematen ziren Eibarko Goi Argi elkartean. Kanpotik medikuak eramaten zituzten hitzaldiak ematera.

## 40. Victor Sarasketa eta printzipea

- **Erref**: EIB-052/021
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:33:27. **Bukatu**: 00:36:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena**:
Bitor Sarasketa kalean bizi izan zen, ezaguna zen Victor eta berari Erregearekin gertatu izan zitzaizkion anekdotak kontatzen ditu. Mari Tere printzipearekin egon zenekoa.

## 41. Sarasketa lantegia eta sendia

- **Erref**: EIB-052/022
- **Iraupena**: 0:03:48. **Hasi**: 00:36:24. **Bukatu**: 00:40:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

**Laburpena**:
1941ean 17 urte zituela hasi zen Eibarko Victor Sarasketa lantegian lanean. Takigrafia eta bestelakoak ikasten hasi zen han lan egiteko. Sarasketa lantegiaren aipamena eta sendi hartakoak izendatzen ditu.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-09-01*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com